

## <<INTRODUCCIÓN A ARISTOTELES – GIOVANNI REALE>> LABURPENA

### I. Kapituluua: Aristoteles, obra eta bere pentsamendu filosofikoaren formakuntza

Aristoteles K.a. 384-383 urtean jaio omen zen Estagiran, klase altuko familia batean. Hamazazpi urte zituela Platonen Akademian sartu zen, eta bertan hogeitatu urte egon zen formatzen besteak beste aritmetika, geometria, astronomia eta medikuntzan, baina bereziki etika-politikan.

Platonen eragina Aristotelesen pentsamenduan determinantea izan zen, eta Platonen pentsamendutik garatu zuen berak pentsamendu aristotelikoa. Horren adierazle nagusi da Akademian jasotako pentsamendu zientifiko-dialektikoa. Hala ere, Aristotelesek laister abandonatu zuen Platonen ideien teoria, esaterako arima ideia kontsideratu beharrean sustantzia-forma kontsideratuz.

Horrela Aristotelesek bere ikerketa printzipio eta lehen kausen ikerketara bideratu zuen, geroago ondorioztatuz hori dela filosofiaren aztergai espezifikoa. Gizakiaren helburu bezala definitu zuen filosofia, espezifikoki, arimaren alde arrazionalaren helburu bezala. Hau zuzenean zorientasunarekin lotu zuen.

Platonen heriotzaren ostean, Akademiaren ondorengotza ez zen Aristotelesen eskuetan erori. Horregatik, abandonatu zuen hau, urte luzeetako bidaiei hasiera emanez. K.a. 343-342 urte inguruan Mazedoniako Filipok bere semea zen Alejandroren irakasle izateko eskatu zion, honen gobernu hartzearekin amaitu zelarik hezkuntza lan hori. Urte hauetan zehar idatzi zuena zer den jakitea zaila da.

K.a. 335-334 urte inguruan Aristoteles Atenasera itzuli zen, itzuli zenean bere izen ona eztabaidaezina zen dagoeneko. Platonen Akademiaren antzeko eskola bat osatu nahi zuen, baina metekoa zenez Atenaseko legeak ez zion horretarako aukerarik ematen. Horregatik gimnasio batean sortu zuen bere Lizeoa, eta bertako *peripato* kaletik dator diszipuloei jarritako *peripatetiko* izena. Irakaskuntzari dedikatu zizkion urte hauek izan ziren bere bizitzako emankorrenak seguraski.

### II. Kapituluua: <<Filosofia lehena>> (Metafisikaren analisia)

#### **Kontzeptua eta metafisikaren izaera**

<<Metafisika>> deritzo fisikatik haratago dauden errealitateez arduratzen den zientzia aristotelikoari (berez berak <<filosofia lehena>> deitu zion); mundu enpirikoa gainditu eta transzenditu nahi duen pentsamendu filosofikoa da. Aristotelesek lau definizio eman zizkion a)Kausa eta lehenengo printzipioen azterketa b)Izatearen azterketa izatea den heinean c)Sustantziaren azterketa d)Jainkoa eta sustantzia suprasensiblearen azterketa ; eta denen artean sortzen dute metafisika denaren azalpen perfektua. Halaber, Jainkoaren bilaketak hartzen du paper garrantzitsuena metafisikan, eta metafisika eginez gizakia Jainkoarengana hurbiltzen da.

Esan bezala kausa edo printzipioen aztertzea lantzen du, **lau kausa** planteatzen dituelarik: kausa formala, kausa materiala, kausa efizientea edo eraginkorra eta Kausa finala.

Aztergai duen beste auzi bat **izatearena** da, edo <<izatearena, izatea den heinean>>, Aristotelesek honen azterketari ere deitu zion metafisika. Izateari ezaugarri hauek egotzen dizkio: izateak esanahi ugari ditu, baina horrek ez du kontzeptu homonimo huts egiten; izatea ezin da genero edo espezie batera erreduzitu, hau baino askoz zabalagoa da; izateak zentzu ezberdinak izan arren, denek egiten diote erreferentzia unitate berari. Eta izateak honi egiten dio erreferentzia: izate kausalak, izatea bere kasa, izatea egiazko judizio batean, izatea ekintza edo potentzia den heinean.

Substantzia da izatearen kategoria garrantzitsuena, *ousiaren* harreman zuzena duelarik. *Ousia*, forma, materia edo konjuntua izan daiteke. Substantziari hiru esanahi ematen dizkio: substantzia forma da, gauzen esentzia; substantzia materia da, forma materialen osatzen delako; substantzia konjuntua da, forma eta materialen osotasuna. Aurretik aipatutako ekintza eta potentzia desberdintzen ditu hemen: materia beti potentzia egoera dago, eta forma aldiz, ekintzan.

Azkenik, **Jainkoaren** auzia daukagu. Jainko aristotelikoak mundua eta bere printzipio unibertsalen ezagutza du, eta bera izanik printzipio gorena bere burua ere ezagutu behar du. Hala ere, indibiduoak bere osatasunean (alde on eta txarrekin) Jainkoak ez ditu ezagutzen, horregatik Aristotelesen Jainko hau ez da beste batzuen bezain handia nolabait. Jainkoaren beste muga bat, bere maitasunaren ezagutzan, baina maitatzeko ezintasunean dago.

### **III.Kapitulua: <<Bigarren filosofia>> (Fisikaren analisisa)**

Aristotelesen bigarren zientzia teoretikoa <<Fisika>> edo <<Bigarren filosofia>> da, eta errealitate sentikorra du aztergai, eta aurretik azaldutako metafisikatik desberdintzen da. Bere fisika zientzia kualitatiboa da, ez kuantitatiboa.

Naturaren ezaugarri ezinbestekoa da mugimendua. Mugimendua potentzian den izatetik, ekintzan den izatea pasatzea da, hau da, izatean garatzen da. Filosofoak hau gehiago garatu nahian potentzia eta ekintzaz gain, beste kategoria batzuetara eramaten du, substantzia, kualitatean, kantitatean eta lekuan ere aplikatuz mugimendua. Horregatik, espazioa eta hutsak ere harremana dute mugimenduaren ideiarekin, objektuak nonbait daudelako, eta dauden leku hori existitu behar delako. Denbora ere mugimenduaren aldaera bat da.

Azkenik, Aristotelesek errealitate sentikorra bitan banatzen du: mundu sublunarra eta supralunarra edo zerutiarra. Lehenengoa ezaugarritzen da aldaketa forma guztiengatik, bereziki sorkuntza eta usteltzeagatik; bigarrenean aldiz, ezin dira horrelako aldaketa formak eman. Gainera materia ezberdinez daude osatuak.

Esan daiteke Aristotelesen fisika mundu sentikorraren metafisika ere izan daitekeela, azken finean metafisikari lotutako baieztapen asko egin baititu.

### **IV.Kapitulua: Psikologia (Animaren analisisa)**

Fisika aristotelikoak izaki bizidunak ere aztertzen ditu, garrantzitsuena arimaren inguruko analisisa izanik. Izaki bizidunak bizigabeetatik ezberdintzen dituen da, lehenengoek arima dutela.

Gorputz bizidunek bizitza dute potentzian, baina ez dira bizitzan. Horretarako substantzia ezinbestekoa da arima, printzipio adigarria den heinean, gorputzari lotuta, izaki bizidunaren unitatea sortzen da.

Aristotelesek, bizidunak eta bere funtzioak aztertu ostean arimaren hiru oinarritzko funtzio desberdintzen ditu: izaera begetatiboa, izaera sentikorra, eta azkenik izaera arrazionala.

Arima begetatiboa oinarritzkoena da, elikadura, hazkuntzaz, sorkuntzaz., ugalketa-prozesuaz.. arduratzen dena da. Hau landare, animalia eta gizakiei dagokie. Arima sentikorrak mugimendua,

sentsazio eta apetekin du harremana, arima honen kontrolpean dagoelako. Hau animalia eta gizakiei dagokie. Azkenik, arima arrazionala da ezagutza, aukeraketa konzienteaz, etab.-ez arduratzen dena, eta hau soilik gizakiei dagokiena da.

### **V. Kapitulua: Filosofia morala (Nikomakoren etikaren analisia)**

Aristotelesen pentsamenduak zientzia praktikoak zientzia teorikoen ostean datoz, jakintza praktikara subordinatzen delako. Politika deitzen dio gizakiaren jarduera morala ere lantzen duenari, gero **politika eta etikaren** arteko banaketa lauso bat egin arren.

Gizakiaren helburua ongia da, eta ongien ongi hori zorientasuna. Azken finean gizakiak helburu edo ongien atzetik jotzen baitu, eta **zorientasuna** da gizakiaren azken helburua. Askotan pertsonak uste dute zorientasuna plazerrean datzala, ohorean edo Platonek bezala ongiaren ideian. Baina gizakiaren ongia espirituala da, arimaren bertutean datza, eta bertutean dago zorientasuna. Honetaz gain, Platon eta Sokratesek ez bezala, Aristotelesek uste du gorputzaren ongia eta behar material minimoak izatea beharrezkoa dela zorientasuna izateko.

Esan bezala zorientasuna arimaren bertutean dagoenez, arimaren hiru zatietan hau nola ematen den aztertu behar da: arima begetatiboan berdin ematen da bizidun guztietan; arima sentikorrean, berez irrazionala den arren, nolabait arrazoimenaren parte hartzea ezinbestekoa da, “bertute etikoa” deritzo honi; eta azkenik, arima arrazionalan “bertute dianoetikoa” deritzo.

Bertute etikoak ohituraren bidez ematen dira, eta gizakiak potentzialki hau badu ere ohituraz betetzen du hau. Horretarako ekintza justuak eginez bihurtzen da pertsona justua, eta hau era proportzionalan eman behar da (ez gehiegi, ez gutxiegi), bestela ez da lortzen. Bertute etikoen artean garrantzitsuena justiziarena da: legeekiko errespetuan, eta ongien banaketan datzana.

Bertute dianoetikoak aurrekoen gainetik kokatzen ditu, arima arrazionalari dagozkionak direlako. Arima arrazionala arrazoi praktikoan eta arrazoi teorikoan banatzen ditu, lehenengoaren bertutea zuhurtzia da (*phronesis*), eta bigarrenarena jakinduria (*sophia*), bigarren hau izanik bertute gorena. Bertute hauen bidez, eta soilik hauen bidez, lortzen da zorientasuna.

Aristotelesek ukatu zuen pertsonen nahita joka zezaketela gaizki. Honekiko Platonek uste zuen ongia honen ezagutzan dagoela, baina Aristotelesek hau ukatu zuen, bazekielako ezberdina zela ezagutzea zer zer ongia eta ongi jokatzea. Horregatik, “ekintza boluntario” eta “ekintza inboluntarioak” ezberdindu zituen, hauek aukeraketak (*proairesis*) determinatzen zituela esanez, baina aukeraketa egiteko gaitasuna soilik bertutetsuek dute, arrazoiketa eta hausnarketa eskatzen dutelako.

### **VI. Kapitulua: Estatuaren doktrina (Politikaren analisia)**

Aristotelesen politikaren oinarrian ongi indibiduala eta **estatuaren** ongia natura berekoak direnaren ideia dago, biak oinarritzen baitira bertutean, baina garrantzitsuena hala ere estatuaren ongia da, indibiduoak estuaren beharra baitu.

Indibiduoak familietan elkartzten dira, baina hori nahikoa ez denez herrixkak behar ditu, komunitate handiago bat alegia. Honen baitan bitzta morala bermatzeko estatua behar du. Estatuaren osotasuna gabe, ezingo lirakeke ulertu familia zein bestelako komunitatetak.

**Familia eta hiritarrak** aztertzean; familiak aztertzean zuzenean onartzen du bere izatean daudela

emakumeak gizonen menpe, eta esklabuak esklabu direla (hauek beharrezkotzat jotzen baditu ere). Ekonomikoki, familiak behar dutena izateko jarduera naturalak egin behar dituzte, bizitza dutena helburu. Hiritarrei dagokionez, honen parte izateko ezinbestekoa da politikan parte hartzea, *poliseko* politikan alegia (horregatik biztanleriaren gehiena ez zen edo ez zen hiritar sentitzen).

**Estatuak forma ezberdinak** har ditzazke konstituzio ezberdinan bidez. Horren arabera izango da subiraua esaterako, eta hau pertsona bakarrak, talde txiki batek edo gizonen gehiengoak osatu dezake; eta hauek zuzen edo oker (interes indibidualei begiraturik interes komunen gainetik) bete dezakete beraien lana, horrela monarkia eta tirania, aristokrazia eta oligarkia, errepublika (*politeia*) eta demokrazia desberdindu. Aristotelesek forma zuzenean artean ez da baten alde posizionatzen, monarkia edo aristokraziaren boterea hartzeko bezain pertsona bertutetsuak egongo balira gobernu mota horiek onak izango liratekelako; baina errealista izanda *politeiaren* ikusteko forma egokitzat.

**Estatu idealaren** auzia lantzerakoan, bere planteamendu etikoa ezartzen dio indibiduari eta estatuari; hauek ongiak bilatu behar dituztelako, eta bereziki ongi espirituala, honetan baidatza zoriontasuna. Estatu zoriotsu batek honako ezaugarriak izan beharko lituzke: a) Hiritar kopuru on bat egon behar da, ez txikiagia ezta handiegia, gizakiaren neurrira eginda. b) Lurraldeak ezaugarri analogoak izan beharko lituzke: bizitzeko behar dena izan, ondo defendatua ondo kokatuta... c) Hiritar ideal baten ezaugarriak grekoek dituztenak dira, herrialde nordiko eta orientalen arteko erdibide eta sintesi bat. d) Hiriaren subsistentziarako beharrezkoak diren funtzioak beteta egon behar dira, baina benetako hiritarrak direnak gerraz, gobernuaz eta kultuaz arduratuko dira (ordenean), bertute konkretuak behar direlako hauetako bakoitza betetzeko. Gainontzekoak, langileak, nekazariak... hauen beharrei erantzuteko egongo dira. Horrela, "bizitza ona" eta "hiritar" izaera soilik batzuen esku egonez, eta hau naturaltzat jotzen du. e) Hiriaren zoriontasuna bertutearen arabera da, honetarako garrantzitsua delarik norbere izate naturala, ohiturak eta arrazoiak. Honekin harreman zuzena du hezkuntzak, eta bere helburua gizon bertutetsua da, eta hau estatuaren esku egon behar da. Aristotelesek honi gimnasia eta musikan oinarritutako hezkuntza grekoaren ezaugarriak gehitzen dizkio.

## **VII. Kapituluak: Artearen filosofia (Poetikaren analisia)**

**Zientzia produktiboek** osatzen dute zientzien hirugarren mota, eta izenak dioen bezala produktuzko balio dute. Ezagutza bat suposatzen dute, baina ezagutza hau ez da ezta helburua ezta ekintza moralaren mesedetan bilatutako ezagutza bat, produktutako objektuaren mesedetan egindakoa da soilik. Arte batzuk natura osatzeko egiten dira, eta beste batzuk natura imitatuzko; hauek dira Aristotelesek *poetikan* aztertzen ditue <<arte ederrak>>.

Platonek artearen *mimesis* izaera zela eta egin zuen artearen zentsuraren alde. Aristotelesek ikuspegi hau gainditzen du. **Mimesis** artistikoa berregitean datza, baina dimentsio berri batetik; horregatik poesia esaterako ez da ezaugarritzen bakarrik bertotan idaztegitik, baliabide artistiko batzuen erabilerak bihurtzen du artea. Arteak ez du historia kontatzen bere horretan, zerbait gehitzen dio.

Aristotelesek **edertasunaren** kontzeptua artearekin harreman zuzen zuten. Edertasunak ordena, parteen simetria eta determinazio kuantitaboa eskatzen du; hau da: proportzioa.

Filosofoak tragedia aztertu zuten, eta honetan oinarritzen du orokorrean bere artearen filosofia.

**Katarsiaren** kontzeptua garrantzi berezia hartzen du honen baitan, eta honen inguruan bere *poetikaren* bigarren liburuan idatzi bazuen ere, liburua galdu denez, bestelako lanetatik ondorioztatu da bere ikuspuntua. Horrela, Aristotelesen “katarsi poetikoak” ez dio zuzenean erreferentzia egiten purifikazio moral bati, baina ez da ezta ere soilik fisiologikoa; beraz, “plazer estetikoari” egingo dio erreferentzia seguraski.

Aristoteles ikuspuntutik artea ez da zerbait pisutsua, emozioak deskargatzeko aukera bat da eta transmititzen dizkigun emozioak ez dira negatiboak.

### **VIII.Kapitulua: Logika (Organonen analisisa)**

Logika zientzia bat den arren, bere zientzien kategorizaziotik kanpo gelditzen da hau. *Organonek* “instrumentu” esan nahi du, oso ongi definitzen duelarik logika aristotelikoa, logikak edozein ikerketarako instrumentu mentala eskeini nahi duelako. Berez Aristotelesek ez zion logika deitu honi, geroago egotzi zaion terminoa da, berak “analitika” deitu zion. Analitikaren metodoaren bidez, ondorio bat aurretik emandako premisetako informaziotik deribatutakoa da, hau da, silogismoaren doktrina da. Honen bidez logika sistematizatu eta bere logika osoa sortu zuen.

Analitikoaren artean analitiko lehenengoak eta analitiko bigarrenak desberdindu zituen bere lanean, lehenengoak silogismoaren estruktura orokorra era formalean lantzen ditu, eta bigarrenak egitura formalaz gain egiazkotasuna, hau da, hauen ezagutza eta sortu dezaketen problematika. Honen baitan dauden kategoria, termino eta definizioak ere aztertu zituen.

Silogismoa arrazonamendu perfektua da, ondorioa aurrekarietan datzalako. Hau normalean hiru proposizioz dago osatuta, bik aurrekari funtzioa betetzen dutelarik eta horregatik premisa deitzen zaientak, eta besteak ondorioa. Silogismo sinpleena den honetatik serie askoz konplexuagoak garatu zituen. Silogismoaren kasuan premisak (eta beraz, ondorioa) egiazkoak direla ziurtatzen denean “demostraziozko silogismoa” edo “silogismo zientifikoa” deitzen zaio. Egituraz gain, esaten ari dena egia izatean ere fokoari jarri behar delako zientzia edo demostrazioetan.

Silogismoaren ondorioa dedukzio bidez lortzen da, premisetatik deduzituta. Baina premisak indukzio edo intuizio bidez. Horregatik egia lortu nahi bada zientziak “axiometara” jo beharko dute, hau da, egia ziurrez; eta bertatik ondorioztatzen joan gainontzeko egia.

Baina lehen esandako egietatik egiten ez bada, eta premisak soilik gertagarriak badira, silogismo dialektikoa deitzen zaio. Hau bereziki baliagarria izan daiteke eztabaida batean esaterako besteen baieztapenetatik heltzeko nahi den ondorioetara. Bestalde, silogismoa iritzietan dagoenean oinarrituta, silogismo eristikoa deitzen zaio.